

EH Bilduk parte hartze araudi berria egiteko prozesua irekitzea begi onez ikusten du, eta ekarpenak aurkeztu ditu

Nagore Gomara: "Oposizio eraikitzailea egiteko ardura hartu dugu, eta gai honetan, arduratsu jokatu dugu uste dugulako gure herria hurrengo hamarkadetan hobetzeko estrategikoa den gai baten aurrean gaudelako".

Laudio, 2021.02.05. Parte hartze araudi bat egiteko prozesua, definizioz, parte hartzailea izan behar duela defendatu du EH Bilduk. Horregatik, orainoan bada ere, herritarren parte hartzerako erregelamendua definitzeko prozesu parte hartzaile sakon eta sendo propio bat martxan jartzea eskatu dio koalizioak udal gobernuari. Denboran mugatua eta metodologia arin batekin, deliberazio minimo bat jasotzen duen prozesua guztiz beharrezkoa dela adierazi du EH Bilduko zinegotziak: *"Benetako parte hartzea ez da bakarrik iradokizunak, kexak edo ideiak jasotzeko aukerak ematea; haratago doa, eta erabakietan, auzokide nahiz elkarten parte hartzea bermatzean datza"*. Deliberazioa urrats desberdinak jasotzen dituen prozesua da, eta elkarte eta auzokideen ikuspuntuak udal kudeaketan txertatu ahal izateko, ibilbidea gizartearekin modu konpartitu eta parte hartzailean egiteko legeak eskaintzen dituen aukerak baliatu behar ditugula adierazi du koalizio abertzaleak.

Ekarpenei dagokionez, EH Bilduren araudi proposamenak planteatzen ditu kontzeptu orokorrak berregituratzea, partaidetza-organoetan aldaketak egitea, hain zuzen ere, batzuk nabarmen handituz, eta, aurreikusita edo garatuta ez zeuden gai berri asko araudian gehitzea. Horrela, parte hartzearekin lotutako jarduerak 3 atal handitan bereizten dira: informazioa jasotzeko eskubidea eta entzuteko eskubidea gobernu onaren lehen eremu gisa; eskaera eta ekimena izateko eskubidea bigarren maila gisa; eta hirugarren batean, eztabaidarako eskubidea. Bestalde, erregelamendu osoan zehar, urrutiko eta aurrez aurreko parte-hartzea ahalbidetzeko zeharka jasotzen den gaia da berrikuntza teknologikoak eta uztartze-ekintzak txertatzea partaidetza-mekanismoetan. Azkenik, proposamenen artean ere jasotzen da deliberazioa behar bezala gauzatzeko, organoen sarea handitzea eta zabaltzea.

Bukatzeko, EH Bilduk benetako apustua egiten du Laudio parte hartze dinamiketan eredugarria eta aitzindaria izan dadin, eta bide horri ekiteko asmoz, eskua luzatzen die alderdi gutzietan proiektuan elkarrekin lan egiteko.

EH Bildu valora positivamente abrir el proceso de elaboración del nuevo reglamento de participación ciudadana, y presenta sus aportaciones

Nagore Gomara: "Asumimos la responsabilidad de llevar a cabo una oposición constructiva, y en este tema, actuaremos con responsabilidad, porque creemos que se trata de un tema estratégico para la mejora de nuestro pueblo en las próximas décadas".

Laudio, 05.02.2021. EH Bildu defiende que el proceso de elaboración de un reglamento de participación ciudadana debe ser, por definición, participativo. Por ello, en esta ocasión, más que nunca, la coalición ha pedido al equipo de gobierno la puesta en marcha de un proceso participativo exhaustivo y sólido propio para la definición del reglamento de participación ciudadana. Limitado en el tiempo y con una metodología ágil, la concejala de EH Bildu señala que es absolutamente necesario un proceso que lleve implícito una mínima deliberación: *"la participación real no es sólo ofrecer oportunidades para recoger sugerencias, quejas o ideas, sino que va más allá, ya que se trata de garantizar la participación de los vecinos y vecinas, y asociaciones en las decisiones"*. La coalición abertzale ha señalado que la deliberación es un proceso que contempla diferentes pasos, y para poder integrar los puntos de vista de las asociaciones y vecinos y vecinas en la gestión municipal, debemos aprovechar las posibilidades que ofrece la ley para hacer ese recorrido compartido y participativo con la sociedad.

En cuanto a las aportaciones, las propuestas de EH Bildu plantean reestructurar los conceptos generales, introducir cambios en los órganos de participación, aumentando notablemente algunos de ellos, e incorporar a la normativa cuestiones nuevas que no estaban previstas o desarrolladas. Así, las actuaciones relacionadas con la participación se dividen en 3 grandes apartados: el derecho a recibir información y el derecho a la escucha, como primer ámbito del buen gobierno; el derecho a la petición e iniciativa, como segundo eslabón; y el derecho a la deliberación, en un tercer nivel. Asimismo, a lo largo de todo el reglamento se recoge transversalmente la introducción de innovaciones tecnológicas y acciones de conciliación, para posibilitar la participación a distancia y presencial. Finalmente, las propuestas incluyen también ampliar la red de órganos, con el fin de llevar a cabo adecuadamente el proceso de deliberación.

Por último, EH Bildu apuesta decididamente por hacer de Laudio un referente y pionero en las dinámicas de participación y, para iniciar esta andadura, lanza la mano a todos los partidos políticos con el fin trabajar conjuntamente en el proyecto.